

ESKOLARA OINEZ

2025 - 2026 ikasturtea

Familia agurgarriak:

Azkoitia herria hobetzeko eta gure seme-alaben ongizatea indartzeko asmoz, oso proiektu berezia aurkeztu nahi dizuegu: **ESKOLARA OINEZ**. Helburua oso erraza da: umeek eskolara oinez, segurtasunez, lagunduta eta bidea gozatuz joatea.

Zergatik joan oinez eskolara?

Gero eta gehiago gara ibilbide laburretarako ere autoa erabiltzen dugun familiak, eta horrek ondorio batzuk ekartzen ditu:

- Aire kutsadura eta zarata gehiago.
- Eskola-inguruetan auto ilarak eta arrisku egoerak.
- Umeentzat jarduera fisiko gutxiago.

Aldiz, egunero pixka bat oinez egiteak onura asko ditu:

- Garraiorik jasagarriena da.
- Osasuna eta jarduera fisikoa hobetzen ditu.
- Autonomia eta ardura lantzen ditu.
- Umeen arteko harremanak sendotzen ditu.
- Eskolara alaitasunez eta erne iristen dira, eta horrek ikasketa emaitzak ere hobetzen ditu.

Gainera, haurrentzat seguruagoa den herri bat, helduentzat ere hobea da.

Nola funtzionatzen du "oinezko autobusak"?

Floreaga eta Xabier Munibe ikastetxeetara doazen ibilbide finakoak antolatuko dira:

- Irteera puntua eta ordutegi zehatza izango dira.
- Geratu-lekuak egongo dira bidean zehar, ume gehiago taldean sartzeko.
- Guraso boluntarioak izango dira taldearekin, segurtasuna bermatzeko.
- Parte hartzaile guztiek txaleko adierazgarria eramango dute.

Autobus baten antzera... baina denok elkarrekin oinez!

Gutun honekin batera, ibilbideen mapa eta geldialdiak ere jasoko dituzue.



Nola lagundu dezakete familiek?

Ekimenak ondo funtziona dezan, beharrezkoa da familia boluntarioen talde txiki bat sortzea ikastetxe bakoitzean, denen artean batzorde bat osatzeko.

Talde honek honakoak egingo ditu:

- Txanden antolaketak.
- Gerta daitezkeen gorabeherak kudeatu.
- Hobekuntza proposamenak egin.

Batzordea osatzeko, ikastetxe bakoitzetik 4-5 familia boluntarioekin nahikoa litzateke, baina bideko txandak antolatzeko, zenbat eta gehiago izan, hobe.

Ekaina iristean, ibilbide-proba egingo dugu. Horrela, behar diren egokitzapenak egin eta hurrengo ikasturterako dena prest utziko dugu.

Maiatzaren 12an informazio bilera

Ordua: 18:30

Lekua: **Elkarguneko Oteiza gela**

Xehetasun guztiak azaltzeko eta galderak erantzuteko.


Denon artean Azkoitia osasuntsuago, seguruago eta atsegina egitea lortuko dugulakoan, agur bero bat bidaltzen dizuegu.

Animatu zuen seme-alabak parte hartzera!

Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan badaude, primeran parte har dezakete:

- Txikiak handien laguntza izango dute.
- Handiek txikiei laguntzeko aukera bikaina izango dute.

Gainera, esperientzia dibertigarria, hezigarria eta soziala izango da haientzat.



Egin klik irudian, planoak ikusteko.



Floreaga (8:45)

8:45

Balda plaza (8:40)

8:40

Haurreskola (8:35)

8:35

Santa Klara (8:30)

8:30

Eliz ataria (8:45)

8:45

Herriko plaza (8:45)

8:45

Aingeru kaleko iturria (8:40)

8:40

Jausoroko zubi berria (8:35)

8:35

Anaitasuna plaza (8:30)

8:30

Parkea (8:30)

8:30

Altamira (8:30)

8:30

Trenbidearen zumardia 23 (8:35)

8:35

GI-631

GI-2634

GI-631

GI-3172